

**GASTEIZKO UDALAREN  
INSTRUKZIOA:  
GENEROAREN ARABERAKO  
ERAGINAREN AURRETIAZKO  
EBALUAZIOA**

UDAL GAIAK BILDUMA





**GASTEIZKO UDALAREN  
INSTRUKZIOA:  
GENEROAREN ARABERAKO  
ERAGINAREN AURRETIAZKO  
EBALUAZIOA**

UDAL GAIAK BILDUMA

**EKIN!**

**ARGITARATZAILEA:**

Vitoria-Gasteizko Udala  
2023ko urria

**EGILEA:**

Berdintasun Zerbitzua, Alkatetzaren, Erakunde Harremanen  
eta Berdintasunaren Saila, Olympia Berriren aholkularitzarekin

**ITZULTZAILEA:**

Euskara Zerbitzua, Alkatetzaren, Erakunde Harremanen  
eta Berdintasunaren Saila

**MAKETAZIOA:**

La Debacle S.L.

**IMPRIMATZAILEA:**

Héctor Soluciones Gráficas

**L.G.:**


VI 700-2023

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

# AURKIBIDEA

<b>0. Erreferentziako agiriak</b>	<b>7</b>
<b>1. Sarrera</b>	<b>9</b>
<b>2. Irismena</b>	<b>15</b>
<b>3. Egiteko eskumena duen organoa</b>	<b>21</b>
<b>4. Noiz abiarazten da GEE-A?</b>	<b>23</b>
<b>5. Ibilbidea: faseak eta edukia</b>	<b>25</b>
<b>1. fasea: GEE-a egiteko salbuespenaren edo betebeharraren aurretiazko balorazioa</b>	<b>26</b>
<b>2. fasea: Eraginaren ebaluazioa: egoeraren azterketa, genero-eraginaren balorazioa eta hobekuntzak</b>	<b>26</b>
<b>A. Arau-proiektuaren deskribapen orokorra</b>	<b>27</b>
<b>B. Eraginaren ebaluazioa</b>	<b>28</b>
<b>C. Hobekuntzak</b>	<b>38</b>
<b>3. fasea: berdintasun zerbitzuaren oharrak eta iradokizunak</b>	<b>45</b>
<b>6. Eranskinak</b>	<b>47</b>
<b>I. eranskina</b>	<b>48</b>
<b>II. eranskina</b>	<b>49</b>







# Erreferentziako agiriak

Instrukzio hau dokumentu hauen edukian oinarritzen da:

- Abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren eranskina; ebazpen horren bidez, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzen dira, eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen.
- Generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko gidaliburua – Emakunde, 2013.
- Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa toki erakundeetan – Berdinsarea (Eudel) eta Emakunde, 2018.
- Ekin! Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Plana, 2023-2030.







# Sarrera

Tokiko Gobernu Batzarrak **“Gasteizko Udalean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko instrukzioa»** onartu du.

Horrela, bete egiten da **martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, zeinaren bidez onartu baitzen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina**: izan ere, 20.3 artikuluan honako agindu hau jasotzen du: “EAEko administrazio publikoek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duen organoak edo organismoak proposatuta, arauak edo gidalerroak onetsi behar dituzte, adierazteko zer jarraibide bete behar diren generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzeko, bai eta zer arau geratzen diren salbuetsita ebaluazioa egin beharretik (...)».

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa (GEE) da administrazioaren jardunean genero-ikuspegia sistematikoki

txertatzeko estrategia praktikan jartzen duten tresnetako bat. Tresna horren bidez, arauak egin eta onartzeak berdintasunean eta, ondorioz, herritarrengan eragin positiboa izan dezan lortu nahi da.

Horretarako, GEEaren bidez, alde batetik, proiektatutako jarduera aztertzen da, aurretik egon daitezkeen genero-desberdintasunak identifikatzeko eta ikusteko arauak nola lagunduko duen hautemandako desberdintasunak areagotzen edo murrizten; bestetik, eta egindako eragin-ebaluazioaren arabera, arau-proiektuak emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eragin negatiboa neutralizatzeko neurriak sartzen dira, baita hautemandako desberdintasunak murrizteko edo ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen arabera, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa da administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurrietako bat. Hala, 20. artikuluan (Generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzea) hau ezartzen da: "Arau bat egiteko unean, EAEko administrazio publikoek, hori sustatzen duen administrazio-organoaren bitartez, ebaluatu egin behar dute proposamen horrek nolako inpaktua izan dezakeen emakumeen eta gizonen egoeran".

Ildo beretik, Legearen 19.3 artikuluan honako hau ezartzen da: "Generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzerakoan, desberdinkeriak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzerakoan (...) kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen arteko diferentzietan zer-nolako eragina daukaten diskriminazioa eragiten duten faktoreek (...)".

Bestalde, **EKIN! Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planak** (2023-2030) bere lehen ildo estrategikoan (**genero-berdintasuna udal gobernuaren ereduan**), hirugarren programaren barruan (**genero-ikuspegia lan-prozeduretan txertatzea**), honako helburu

hau jasotzen du, besteak beste: **Udalaren araudi, plan eta proiektu estrategikoetan genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioa egiteko joeran aurrera egitea.**

Helburu hori hiru ekintzatan zehazten da:

- Araudia sortzean genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioen txostenak egitea (udal zerbitzu guztiak izango dira ekintza horren arduradunak).
- Instrukzio bat diseinatzea, Gasteizko Udalean genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiteko prozedura ezarriko duena.
- Udal zerbitzuek egindako genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioen jarraipenari buruzko urteko memoria egitea.

Azken bi ekintzak Berdintasun Zerbitzuak hartutako konpromisoak dira, eta instrukzio hau onartuz beteko dira.

Azken batean, instrukzio honen xedea da genero-ikuspegia udalaren araudi eta lan-prozeduretan txertatzea, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioaren bidez (GEE) eta hautemandako desberdintasunak arintzeko neurriak ezarri. Kontuan hartuta, halaber, **GEEa nahitaez bete beharrekoa** dela, instrukzio honetan jasotako jarraibide eta gidalerroek Gasteizko Udaleko sail, zerbitzu eta atal guztiak, erakunde autonomoak, udal enpresak eta mendeko erakundeak lotzen dituzte.

Gainera, nabarmendu behar da Gasteizko Udalak Berdintasun Zerbitzuaren bitartez ezartzen dituen genero-berdintasunerako politikak sexu – eta genero-aniztasuna (SGA) barne hartzen dituztela, eta zalantzan jartzen heterosexualitate normatiboa eta genero-binarismoa (hau da, bi genero bakarrik dagoelako ustea: emakumea eta gizona). Horretarako, ikuspegi feminista interseksionala erabiltzen du.

Horrela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari erreparatzeaz gain, arauzkoak ez diren sexu-orientazioak eta

genero-identitateak dituzten pertsonen desberdintasun-egoera ere kontuan hartzen du (besteak beste, heterosexuak ez diren pertsonak, beren burua emakume edo gizontzat ez dutenak, edo trans direnak). Desberdintasun horiek guztiek gizarte-antolaketa patriarkaleko sistema batean dute oinarri.

Horren haritik, EKIN! Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planak (2023-2030) GSA zeharkako bihurtzeko asmoa du, eta Hara! Gasteizko Udalaren berdintasunerako politiketan sexu – eta genero-aniztasuna txertatzeko agendak urtero jasotzen du arlo horretan aurreikusitako udal jarduera.

Datu kuantitatiborik ez dagoenez –batez ere gaur egun sexu-orientazioa eta genero-identitateak oso datu babestuak direlako–, ezin dira aldagai horiek generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioetan sartu. Hala ere, Udal honek eskatzen du kontuan har daitezela metodologia kualitatiboa erabil daitekeen kasuetan (dokumentu honek adibide batzuk ematen ditu).

Era berean, egiturazko desberdintasuna sortzen duten beste aldagai batzuk kontuan hartzeko eskatzen da, hala nola egoera administratiboa, errenta, adina, desgaitasunak edo kultura-jatorria.

Hurbilketa teoriko horiek argitu eta zehaztaper horiek eginda, garrantzitsua da azpimarratzea generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeko tresna (GEE) paradigma binario batetik abiatzen dela, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzeko sortua dela. Azaldu den bezala, Gasteizko Udalaren berdintasun-politikek jarraitzen duten ikuspegia ez bada ere, GEEa tresna indartsua da errealitatearen zati handi bat behatzeko, eta, ahal den kasuetan, lehen aipatutako errealitateekin aberastea gomendatzen dugu.


Horregatik guztiagatik, udal sailek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte egungo lege-esparrutik eratorritako gomendioak betetzen direla bermatzeko, eta, azken batean, horien aplikazioa eraginkorra dela bermatzeko. Berdintasun Zerbitzuak zalantzak

argitu ahal izango ditu, eta erreferentziako beste material batzuk eskaini ahal izango dizkie hala eskatzen duten udal zerbitzuei, instrukzio honen aplikazioa errazteko.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urriaren 20an

Ana Rosa López de Uralde Gómez, Alkatezaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria





# Irismena

Arauk generoari dagokionez neutroak direla uste izaten da, berdin zuzentzen zaizkielako herritar guztiei edo horien multzo bati, baina ez badira kontuan hartzen posizio ekonomikoan, politikoan eta sozialean emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak, ezin dira neutrotzat hartu generoari dagokionez, itsutzat baizik. Kasu horretan, litekeena da arauak eragin desberdina izatea emakumeengan eta gizonengan, dauden desberdintasunak mantenduz —eta are handituz—, ondorio hori aurreikusita ez bazegoen ere, eta hala gertatzea nahi ez izan arren.

Desberdintasun egoera batetik abiatzen dena berdin tratatzeak ez dakar berdintasunik; aitzitik, betikotu edo areagotu egiten du desberdintasuna. Gainera, eraginaren azterketa bat egingo bagenu emakume edo gizontzat jotzearekin gurutzatzen diren beste diskriminazio-faktore batzuk daudela kontuan hartuta, kolektibo jakin batzuk desberdintasun-egoera handiagoan daudela ikusiko genuke.

Beraz, araudiak ezartzen du, oro har, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin behar dela **tokiko arauen** proiektu guztietan: ordenantzak, erregelamenduak, aurrekontu – eta hirigintza-

arauak. Izaera berezia duenez, xedapen orokorren izaera juridikoa duten lurralde – eta hirigintza-planetarako GEEaren kasuan, tresna hori egokitu egingo da, eremu horrek behar duen analisiari erantzuten dioten beste jarraibide batzuk emanez. Era berean, zerikusia duten sailekin prozesu bat bideratzen ari gara udal aurrekontuan genero-ikuspegia txertatzeko tresna bat taxutzeko.

Honako arau-proiektu hauek **salbuetsita** daude:

- **Funtsean antolaketa-izaera dutenak.** Zehazki:
  - » Egitura organiko eta funtzionaleko dekretuak.
  - » Kontsulta-, aholkularitza-, ikerketa – eta koordinazio-organoen sorrera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen duten proiektuak, organo horiek administrazio publikoetako langilez soilik osatuta badaude.
  - » Administrazio-erregistroak sortzeko edo antolatzeko proiektuak.

Aipatutako proiektuez gain, beste proiektu batzuk ere jo daitezke salbuetsizat, haien edukia antolaketarekin lotuta badago.

Horretarako, **erabakigarria izango da ziurtatzea proiektuak ez dakarrela herritarrek administrazioaren funtzioetan parte hartzea.**

Esate baterako, udal administrazioaren egitura organikoa eta udal erakunde publikoen atxikipena ezartzen dituen alkate dekretu bat salbuetsita egongo litzateke, funtsean antolamendu-izaera duelako.

- **Indarrean dauden arauak bateratzea xede dutenak, inolako arau-berrikuntzarik ez dakartenak.** Adibidez, ordenantza fiskalen eta prezio publikoen testu bategina onesteko arau-proiektu bat.
- **Generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez dutenak,** dela emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutelako, dela eragin hori hutsaren hurrengoa delako eta, edonola ere, herritarren bidezko eskubideei eragiten ez dietelako. Adibidez, udal webgunearen domeinua “.com»-tik “.eus»-era aldatzea arautzen duen arau-proiektu bat.



Oro har, arau guztiak dira garrantzitsuak generoaren ikuspegitik, eta, beraz, arau bat salbuetsizat jotzeko, garrantzirik eza justifikatu beharko da, honako bi galdera hauei erantzunez:

- Arauak pertsoneri eragiten al die, zuzenean edo zeharka?
- Arauak alderdi hauei eragiten al die, zuzenean edo zeharka?
  - » Emakumeek eta gizonek baliabide ekonomiko eta sozialak eskuratzeari.
  - » Erabakiak hartzeko eremuetan parte hartzeari.
  - » Genero desberdintasunen iraupenean eragina duten gizarte-arauei eta balioei.

**Administrazio-egintzei** dagokienez, soilik **enplegu publikoaren eskaintza publikoetarako deialdiei eta lekuz aldatzeko lehiaketei** buruzko GEEak egitea proposatzen da.

Bereziki, proposamen hauek daude **salbuetsita** GEEa egitetik:

- **Planak, programak** edo politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk. Hala ere, kontuan hartu beharko dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako printzipio orokorrak.

- **Edozein laguntza publiko (dirulaguntzak, bekak, sariak...)** **emateko deialdiak**, baldin eta, jarraibide hauen ondorioetarako, ez badira arau-xedapen orokortzat hartzen, irauteko asmorik ez dutelako, eta denbora-epe batean berez amaitzen direlako. Adibidez, dirulaguntzak ematea oro har eta mugarik gabe arautzen duen ordenantzaren GEEak egingo dira, baina arau horren babesean urtero egitekoak diren deialdiak salbuetsita egongo dira. Hala ere, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzari buruzko Legeak –martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Legearen testu bategina onartzen duena– 23. eta 25. artikuluetan xedatzen duenez, dirulaguntzen deialdien oinarrietan eta plan sektorial eta estrategikoetan genero-ikuspegia txertatu beharko da, baita berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak ere, bereziki kontuan hartuta beste diskriminazio-faktore batzuk dituzten emakumeen egoera.
- **Zerbitzu-eginkizunak** eta **lanpostuen balorazio-prozedurak** ebatzen dituzten egintzak.

**Kasu guztietan txosten bat egingo da salbuespenaren arrazoiak behar bezala justifikatzeko, eta testuaren idazketan hizkuntzaren erabilera inklusiboa bermatuko da, baita beste neurri batzuk ere, sexuaren eta generoaren arabera bereizitako datuak biltzeko, eta kontsulta-organoetan, epaimahaietan, partaidetza-prozesuetan eta abarretan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko. (l. eranskina).**

## Laburpena:

Oro har, **arau-proiektu** guztien GEEa egin behar da (ordenantzak, erregelamenduak, aurrekontu – eta hirigintza-arauak).


Hala ere, prozedura honi dagokionez, salbuetsita daude honako arau-proiektu hauek:

- a. Funtsean antolaketa-izaera dutenak.
- b. Indarrean dauden arauak bateratzea xede dutenak.
- c. Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez dutenak.

**Administrazio-egintzen** proposamenei dagokienez, soilik enplegu publikoaren eskaintza publikoetarako deialdiei eta lekuz aldatzeko lehiaketei buruzko GEEak egingo dira.



**EKIN!**




# Egiteko eskumena duen organoa

Arau baten GEEa egiteko ardura **hura sustatu duen organoarena** da, eta Berdintasun Zerbitzuaren aholkua izan dezake ([igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org](mailto:igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org)).



**EKİN!**



# Noiz abiarazten da GEE-A?

**Toki-arauen kasuan**, ahal dela, etorkizuneko arauaren funtsezko alderdiak zehaztuta daudenean (xedea, helburua, esku-hartzearen eremua, helburu eta neurri nagusiak...) eta testua oraindik idatzi gabe dagoenean, osorik behintzat. Hau da analisia egiteko unea.

Generoaren araberako eragina ebaluatzeko prozesuak aurrera egin ahala, arauaren idazketa osatu edo, hala badagokio, aldatu egin beharko da.


Zirriborroa Tokiko Gobernu Batzarrari onartzeko aurkeztu baino lehen amaituko da generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena.

**Administrazio-egintzen kasuan**, instrukzio-egintzak bete aurreko unean amaituko da generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

The logo features the word "EKIN!" in a bold, sans-serif font. The text is white and is centered within a white, rounded rectangular shape. This white shape is layered over a larger, semi-transparent yellow rounded rectangle. The background of the entire image is a solid yellow color, with white grid patterns in the corners.

**EKIN!**





# Ibilbidea: faseak eta edukia

**1. FASEA:**  
GEE-a egiteko salbuespenaren  
edo betebeharraren aurretiazko balorazioa

**2. FASEA:**  
eraginaren ebaluazioa: egoeraren azterketa,  
genero-eraginaren balorazioa eta hobekuntzak

**3. FASEA:**  
berdintasun zerbitzuaren oharrak  
eta iradokizunak (hautazkoa)

# 1. Fasea: GEE-a egiteko salbuespenaren edo betebeharraren aurretiazko balorazioa

Kontuan hartuko dira "IRISMENA" atalean aipatutako salbuespenak, GEEa beharrezkoa den edo, aitzitik, egitetik salbuetsita dagoen baloratzeko arauaren edo administrazio-egintzaren izaeragatik.

Salbuespen-kasua edozein dela ere, aipatu dugun bezala, **salbuespena justifikatzeko txosten** batean jasoko da, zeina arauaren dosierrean sartuko baita. ([I. eranskina](#))

# 2. Fasea: eraginaren ebaluazioa: egoeraren azterketa, genero-eraginaren balorazioa eta hobekuntzak

Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak informazio gehiago ematen die, modu egituratuan, arauak egiten dituztenei eta horiei buruzko erabakiak hartzen dituztenei, arauak zuzentzen zaizkien pertsonen —emakumeen eta gizonen— beharrei buruz. Horren bidez premia horietarako irtenbide orekatuak eta bidezkoak bilatzen lagundu nahi da. Hartara, tresna horrek, genero-berdintasunaren printzipioa politika publikoetan eraginkortasunez aplikatzea ahalbidetzeaz gain, honako hauek lortzen laguntzen du:

- Botere publikoek herritarren beharrei eta egoerei buruz duten ezagutza handitzea.
- Arauak planifikatu, landu, jarraitu eta ebaluatzeko prozesuak sistematizatu eta hobetzea.
- Arauen aplikazioaren emaitzaren eraginkortasuna areagotzea.

**Generoaren arabera eraginari buruzko txostena arauaren dosierrean sartuko da, eta zati hauek izango ditu, II. ERANSKINEAN zehaztutako ereduaren arabera:**

- A. Arau-proiektuaren deskribapen orokorra.**
- B. Eraginaren ebaluazioa.**
- C. Hobekuntzak.**

## **A. ARAU-PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA**

Atal honetan, alderdi hauek aipatu behar dira: arau-proiektuaren izena eta zer sailek eta, kasua bada, zer zuzendaritzak sustatzen duen. Era berean, proiektuaren edo proposamenaren aurrekariak eta justifikazioa identifikatzeko eta hura testuinguruan jartzeko aukera ematen duten beste arau edo plan batzuk dauden adierazi beharko da.

Azkenik, azaldu beharko da zein diren proiektuaren edo proposamenaren helburu orokorrak, eta zein diren genero-berdintasuna sustatzeko helburuak.

## B. ERAGINAREN EBALUAZIOA

Fase honetan informazioa jaso behar da arauak erregulatzeko duen eremuan herritarren gizarte-egoera nolakoa den jakiteko, eta, kasu bada, sexuagatik eta generoagatik alde aurretik egon daitezkeen desberdintasunak identifikatu behar dira. Horretarako, sexuaren arabera (emakumea eta gizona) bereizita dauden estatistikak eta datuak aztertu beharko dira.

Posible den kasuetan, azterketa hori zabaldu egingo da informazio kualitatiboarekin, esaterako, beste kolektibo batzuen –LGTBI kolektiboa, kasu– errealitateari buruzko azterlanak, diagnostikoak... Horrela, ebaluatu ahal izango da arauak modu positiboan edo negatiboan lagunduko duen hautemandako desberdintasunak murrizten edo ezabatzen eta testuinguru horretan berdintasuna sustatzen.

Zehazki, sexuaren araberrako azterketan kontuan hartu beharko da nola gurutzatzen den sexu-kategoria beste desberdintasun-ardatz batzuekin, hala nola errenta, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, jatorria, lan-egoera, familia-egoera eta abar, testuinguruaren arabera. Funtsezkoa da egoeraren azterketa osoa eta errealitateari egokitua izatea, azterketa hori baita inpaktua ebaluatzeko eta ondoren neurrien proposamen egokia egiteko oinarria. Horixe da, ziurrenik, eraginari buruzko txostenaren atal funtsezkoena.

Horrenbestez, emakumeen eta gizonen egoera aztertzeak alde aurretik informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bilatzea eskatzen du. Horretarako, proiektuari dagokion eremuari edo sektoreari buruzko informazio-iturri hauek erabil daitezke:

- Hasteko, Emakunderen web-orriko [glosarioa](#) kontsulta daiteke, generoaren araberrako eraginaren ebaluazioa egin ahal izateko funtsezkoak diren termino batzuen definizioak biltzen dituen.
- Orrialde berean eskuragarri dauden [gida sektorialak](#), zeinek sektoreko arau-esparruak eta datu-iturriak barne hartzen baitituzte.

- Arauren aplikazio-eremura gehien hurbiltzen diren estatistika ofizialak, sexuaren arabera bereizita, edo genero-harremanei buruzko azterlanak, ikerketak, inkestak eta abar. Baliagarria izan daiteke Gasteizko Udalaren Azterlan eta estatistikak ataria.
- Eustaten “Emakume eta gizonen arteko berdintasuna” webgunea.
- Emakunderen Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak txostena.
- Indarkeria matxistaren alorrean Gasteizko Udalak egindakoaren kontu emateko zifra eta datuen txostena.
- Desirak Plazara, Gasteizko LGTBI herritarren errealitatei buruzko diagnostikoa.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eskubideak, aginduak eta helburuak jasotzen dituzten arau juridikoak eta beste dokumentu batzuk.
- Sexu-orientazioa eta genero-identitatea babesten dituzten arau juridikoak eta bestelako dokumentuak.

### **Azterketa lau eremutan egituratzen dugu:**

- 1. Emakumeen eta gizonen presentzia eta genero-arrakalak baliabideak eskuratzeko orduan.**
- 2. Erabakietan parte hartzea.**
- 3. Gizarte arauak eta balioak.**
- 4. Berdintasunaren arloko araudia betetzea.**

## **1. eremua. – Emakumeen eta gizonen presentzia eta genero-arrakalak baliabideak eskuratzeko orduan.**

Egoera aztertzeko, proiektuaren esparruan emakumeek eta gizonek duten banaketari buruzko datuak eta estatistikak emango dira –non dauden emakumeak eta gizonak eta nork egiten duen zer–, eta desberdintasunak identifikatu eta deskribatuko dira, halakorik badago.

Era berean, baliabideak eskuratzeko genero-arrakalak identifikatu eta deskribatuko dira, halakorik balego: nork duen baliabide jakin bat eskuratzeko aukera eta nork ez, zer desberdintasun dauden eta zergatik, zein diren desberdintasun horietan eragiten duten funtsezko faktoreak. Funtsezkotzat jotzen dira baliabide hauek: denbora, espazioa, dirua eta baliabide ekonomikoak, informazioa, hezkuntza eta formazioa, lana eta karrera profesionala, etxeko lana, erreproduzio-lana, teknologia berriak, osasun laguntzarako zerbitzuak, etxebizitza, garraioak, aisia...

Azterketa horretan, kontuan hartuko da emakumeen beren artean eta gizonen beren artean dagoen aniztasuna, eta errealitatea ikuspegi interseksional batetik aztertuko da; alegia, diskriminazioa eragiten duten botere – eta zapalkuntza-ardatzak elkarri lotuta dauden egoerak identifikatzeko ahalegina egingo da, horrek pertsona batzuk egoera zaurgarriagoan bizitzea ekar baitezake, eta baliabideak eta zerbitzuak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko zailtasun handiagoak izatea.

Horri jarraituz, eragin positibotzat hartuko da:

- Arauaren onuretan aurreikusten denean desberdintasun-egoera batetik abiatzen den sexuaren ordezkari handiago izatea, edo, gutxienez, emakumeen eta gizonen presentzia eremuan duten presentziaren antzekoa izatea.
- Hautemandako desberdintasunak edo arrakalak desagerraraztea edo, behintzat, gutxitzea aurreikusten bada, betiere gutxitze horrek emakumearen autonomia (eta, kasua hori bada, gizonena) areagotzea esan nahi badu, eta gutxitze horrek baliabide gehienei edo garrantzitsuenei eragiten badie.

## 1. adibidea:

**Etxean laguntzeko zerbitzua arautzen duen udal erregelamendurako** proiektu bat analizatu nahi bada, honako hauek aztertuko dira:

Lehenengo, gizon eta emakumeen banaketa:

- Zerbitzuaren onuradunen artean, hau da, zaintzak behar dituzten pertsonen artean, baita biztanleria horren zaintzaile informalen artean ere;
- Zerbitzua ematen parte hartzen dutenen artean, hau da, Udalean baliabide publiko hori kudeatzen duen plantilla, eta zerbitzua emateko kontratatutako enpresen jabetza eta langileak;
- Sexuaren aldagaiaz gain, horrekin gurutzatuta informazio gehiago eman diezaguketen beste aldagai batzuk ere kontuan hartuko dira ahal denean, esaterako, adina, errenta, desgaitasuna....

Bigarrenik:

- Arauak antzemandako desberdintasunak murrizten laguntzen duen aztertuko da; adibidez, zaintza-lanetan emandako orduen arteko aldea murriztuz edo zaintzaile profesionalen lan-egoera hobetuz, gehienak emakumeak baitira (eta migratzaileen ehuneko handia).

## 2. adibidea:

Aurreikus daiteke lanaldi partzialeko plazak eskaintzen dituen **lan-eskaintza publiko (EPE)** batek aldeak murriztuko dituela emakumeen eta gizonen enplegu-tasei dagokienez, gehien bat emakumeak direlako enplegu-modalitate horretan sartzen direnak.

Bestalde, denboraren erabilerari buruzko inkesten azterketa batek erakusten digu lanaldi partzialeko enpleguak dituzten emakumeek guztizko lan-karga handiagoa dutela – produktiboa eta erreproduktiboa – lanaldi osoko enplegua duten emakumeek eta lanaldi partzian ari diren gizonek baino.

Gainera, diru-sarreretan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak oro har gutxitu egingo lirатеkeen arren, lana duten emakume eta gizonei dagokienez handitu egingo lirатеke.

Oro har, eskaintza horrek ez luke lagunduko berdintasuna sustatzen, eta, beraz, eragin negatiboa izango luke, aldi baterako eta koiunturazko planteamendu bat izan ezean eta, gainera, haren ondorio negatiboak indargabetzeko neurriez lagundu ezean, hala nola emakumeentzako laguntzak lanaldi partzialeko kontratuak lanaldi osoko bihurtzeko, etxeko lanetan gizonen erantzukidetasuna sustatzeko neurriak, zerbitzu soziokomunitarioak sortzea, lanaldi partzialeko lanaren ondoriozko baldintzak eta eskubideak hobetzea, eta abar.



## 2. eremua. – Erabakietan parte hartzea

Aztertu nahi da zenbateraino hartzen duten parte emakumeek eta gizonak, bai eta haiek ordezkatzeko dituzten erakundeek ere, arau landu eta betearazteko prozesuan eta proiektuak arautu nahi duen esparruarekin zerikusia duten erabakiak hartzean.

Honako kasu hauetan joko da **inpaktua positiboa** dela:

- Arau landu eta betearazteko prozesuan kontuan hartu bada herritarren eta inplikatutako biztanleriaren hainbat sektore ordezkatzeko dituzten kolektibo edo gizarte-erakundeen parte-hartzea; orobat, arau-proiektuak berak partaidetza erregulatzen badu, ordezkaritza orekatua izan dadin.
- Erabakiak hartzean emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea aurreikusten bada (**sexu bakoitzaren presentzia % 40tik beherakoa ez izatea**), edo, behintzat, haien presentzia proiektuak barne hartzen duen esparruan dutenaren parekoa izatea aurreikusten bada.

## 1. adibidea:

**BIZAN ZENTROEN –lehengo adinekoen zentro soziokulturalen– ARAUDIA** lantzeko proiektua bada, aztertuko da ea proiektuak aurreikusten duen emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea erabaki-postu eta – organoetan: gobernu batzarrak, batzordeak...

Horri buruz egin zen GEEaren kasuan, positiboki baloratu zen alderdi horretan izandako eragina; izan ere, gobernu batzarretan oinarritzen zen partaidetza-sistema batetik, zeinean erabakiak hartzea batez ere gizonen eskuetan baitzegoen, batzordeen arabera partaidetza-eredu horizontalago eta malguago batera igaro zen, zeinak emakumeen partaidetza-ehunekoa igo baitu eta, gainera, emakumeen ikusgarritasun eta ahalduntze handiagoa ekarri.

## 2. adibidea:

**Kirol-federazio** jakin batean izena emanda daukaten gizonen eta emakumeen presentzia % 80 eta % 20koa bada, hurrenez hurren, eragina positiboa izango da gobernu-organo gorenaren aukeraketa arautzean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko neurriak ezartzen badira, edo emakumeen presentzia, behintzat, % 20koa izan dadin.

### 3. eremua. – Gizarte arauak eta balioak

Aztertu behar da gizarte-arau eta – balioek zer eragin duten ezarritako rol tradizionaletan edo sexuaren arabera lan-banaketan; zer jarrera eta jokaera dituzten emakumeek eta gizonek, eta zer desberdintasun dagoen gizonei eta emakumei edo ezaugarri maskulinoi eta femeninoi ematen zaien balioan.

Honako kasu hauetan joko da **inpaktua positiboa** dela:

- **Generoari buruzko gizarte-arauak** erreproduzitzen laguntzen duten egiturak eta mekanismoak aldatzen badira. Horrek esan nahi du esparru hauetan lan egin behar dela, besteak beste: lanaren sexu-banaketan; pertsonak heterosexualak direlako edo familiak 'tradizionalak' direlako ustean; bizitza pribatuaren antolaketan, mendekotasun-egoerak desagerrarazteko, edo antolaketa soziopolitikoan, herritarrek beren eskubideak erabiltzerik izan dezaten.
- Edo, behintzat, **aurrera egiten bada estereotipoak hausteko bidean**, alegia, laguntzen bada emakumei eta gizonei nahiz haien egiten dituzten gauzei ematen zaien balioan dauden desberdintasunak gutxitzen, zalantzan jartzen bada genero-sozializazioak emandakoa emakumei edo gizonei atxikitako berezko zerbait delako ustea, eta kontuan hartzen bada zer dibertsitate dagoen bai emakumeen artean bai gizonen artean, baita sexu – eta genero-aniztasuna ere.

## 1. adibidea:

**Aldamio eta hesietan publizitate-elementuak instalatzea arautzen duen ordenantza** baten proiektua bada, aztertuko da ea arautzen den publizitate-edukiak matxistak ez izatea eta emakume eta gizonen, bikote heterosexualen, familia nuklearren, migratzaileen, adinekoen eta adingabeen irudi estereotipatua haustea; hau da, herritarrak aniztasunean islatzen dituzten eta, adibidez, Emakunderen “Publizitate eta komunikazio ez-sexistarako deontologia – eta autoerregulazio-kodea” betetzen duten.

## 2. adibidea:

**Bide-hezkuntzako proiektu** batek mutilen maskulinitasuna lantzen laguntzen badu —gure kulturaren testuinguruan nola egiten diren gizon—, arrisku-praktikak gizontasunarekin lot ez daitezzen, estereotipoen hausturan lagunduko luke.

## 4. eremua. – Berdintasunaren arloko araudia betetzea

Genero-berdintasuna sustatzeko, indarkeria matxistari aurrea hartzeko eta biktimak zaintzeko eta babesteko esparru zehatzean eragina duten arauetan eta beste tresna juridiko batzuetan (adibidez, ekintza-plan edo – programetan) aurreikusitako aginduak aztertzea da kontua.

Honako kasu hauetan joko da **inpaktua positiboa** dela:

- Agindu horiek betetzen badira eta/edo proiektua bera aipatutako arau edo tresna juridiko horietan adierazitakoa baino haratago badao.

### 1. adibidea:

**Dirulaguntzen ordenantza** batek eragin positiboa izango du arautzen badu balorazio-irizpideen baremoaren % 5ean, gutxienez, eskatzaileei dagokienez emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ekintzak eta politikak puntuatzea, eta/edo genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako beste alderdi batzuk, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legea betetzen ari baita. Ehuneko handiagoa bada, eragina ere handiagoa izan daiteke.

### 2. adibidea:

2000. urtean Lisboan egindako Europako Kontseiluan Enplegurako Europako Estrategia birdefinitu zen, eta Europar Batasunaren esparruan emakumeen enplegu-tasa % 60koa izatea jarri zen helburu. Proiektuan helburu hori bera planteatuko balitz, edo are handiago bat ere, helburua lortzeko neurri eraginkorrekin batera, proiektuak eragin positiboa izango luke.

### **3. adibidea:**

Bere helburu espezifikoen artean pertsona transen enplegarritasuna hobetzea planteatzen duen ekimen bat edo, zehazki, emakume transen enplegarritasuna hobetzea planteatzen duena<sup>1</sup>,

## **C. HOBKUNTZAK**

Azterketaren ondorioz erabakitzen bada arau-proiektua dagoen bezala mantenduz gero berdintasunean eragin negatiboa izango duela, hau da, dauden genero-arrakalak handitu edo mantenduko direla, beharrezkoa da hobekuntzak sartzea.

Hobekuntza horiek izan daitezke, alde batetik, arau-proiektuan desberdintasunak ezabatzeko eta genero-berdintasuna sustatzeko neurriak, eta, bestetik, berdintasunerako helburuen eta neurrien eraginkortasuna areagotzeko neurri osagarriak, arau-proiektuaren edukitik harago, etorkizuneko araua ezartzeari edo aplikatzeari dagokionez.

Are gehiago, eragin positiboa aurreikusita ere, eragin positibo hori handitzeko neurriak planteatu ahal izango dira.

---

1 Ikerketa batzuetan jasotzen den arabera, kolektibo horrek langabeziaren % 80 jasaten duela kalkulatu da; horretaz gain, emakume transen kasuan, prostituzioan aritzen dira ehuneko esanguratsu batean.

## Neurri motak:

### **Arau-proiektuan desberdintasunak desagerrarazteko eta genero-berdintasuna sustatzeko neurriak**

- **Genero-ikuspegia txertatzea sustatzeko neurriak.**
- **Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko neurriak.**
- **Ekintza positiboko neurriak<sup>2</sup>.**
- **Itxuraz neutroak diren baina aurreikusteko moduko genero-inpaktu positiboa duten neurriak.**
- **Diskriminazioa eragiten duten botere – eta zapalkuntza-ardatzen arteko erlazioaren ondorioz emakumeek aurre egin beharreko desberdintasunak murrizteko neurriak.**
- **Debeku – edo zigor-neurriak.**

- 
2. Denboran ondo mugatutako berriazko neurri zehatzak dira; horien helburua bizitzaren eremu guztietan sexuagatik izaten diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzea edo murriztea da. (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena).

Talde jakin bati zuzendutako neurriak dira; neurri horien helburua da bereizkeria ezabatzea eta prebenitzea edo egungo jokabide, portaera eta egiturek sortutako desabantailak konpentsatzea. (Europako Batzordea)

II. eranskineko 2. ataleko (HOBKUNTZAK) lehen taula osatzen duten sei ataletako bakoitzean adierazi behar da arau-proiektuan neurriren bat jaso den ala ez.

Baiezkoan, zenbat neurri bildu diren zehaztu beharko da jasotako sailkapenaren arabera, eta, horren ondoren, proiektuko zer artikulutan bildu diren esan beharko da, eta neurrien deskribapen laburra egin.

### **1. adibidea:**

Proiektu batek ikasketa-mota jakin batean berriki graduatu diren gazteak lanean has daitezen sustatu nahi badu, eta graduatutako emakumeen eta gizonen presentzia % 30ekoa eta % 70ekoa bada hurrenez hurren, neurriak hartu beharko lirateke praktiken esleipenean emakumeen presentzia gutxienez % 30ekoa izatea bermatzeko. Era berean, eta kontuan hartuta emakumeek arazo gehiago dituztela lan-munduan sartzeko, ekintza positiboko neurriak proposa litezke, esleipenean emakumeen ehunekoa % 30etik gorakoa izan dadin sustatzeko; orobat, lana eskuratzeko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuen ehunekoa handitzeko neurriak har litezke (desgaitasuna duten pertsonak, transak...).

### **2. adibidea:**

Arau-proiektu baten xedea bada kontratatzeko laguntzak arautzea eta, aurrez egindako diagnostikoaren argitan, proposatzen badu laguntzak handitu behar direla onuraduna guraso bakarreko familia-egoeran badago, uste izatekoa da modu orokorrean adierazita egon arren —hau da, bai emakumeen kasuan bai gizonenean aplika daitekeela— eragin positiboa izango lukeela emakumeen gizarte-egoeran, aipatu kolektibo horretan emakumeak direlako gehiengoak. Horrelako neurriak **“itxuraz neutroak direnak, baina aurreikusteko moduko genero-eragin positiboa izan dezaketenak”** motako neurrien atalean jaso beharko lirateke.



### 3. adibidea:

Arau-proiektu baten xedea bada diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko errenta erregulatzea, irismen handiagoko beste neurri batzuk baztertu gabe, alde batetik, berariaz aipa liteke azalpenetarako aldean zer desberdintasun dauden emakumeen eta gizonen artean sarrera ekonomikoei dagokienez, baita beste talde batzuen kasuan ere, ezagutuz gero (transak, migratzaileak, guraso bakarreko familiak, adineko emakumeak...) (a).

Bestalde, xedapenetan, arauaren helburuetako bat pobrezia-errentaren feminizazioari aurre egitea dela zehazteaz gain (b), adieraz liteke emakumeen eta gizonen egoera bereizgarria aztertu beharko litzatekeela berme-errenta hori jasotzen duten pertsonen egiten diren ikerketetan (c), eta betebeharrak jakin batzuk kentzea ere aztertu beharko litzatekeela, indarkeria matxistaren biktima direnek errenta hura errazago jaso dezaten (d).

Kasu horretan, genero-ikuspuntua txertatzea sustatzeko hiru neurri izango lirateke; haietako bi berdintasuna adierazpen edo azalpen moduan (a) eta helburu gisa (b) jasoz, eta hirugarrena emakumeen eta gizonen egoera bereizgarria hobeto ezagutuz (c). Gainera, itxuraz neutroa litzatekeen baina aurreikusteko moduko genero-eragin positiboa izango lukeen neurri bat legoke, indarkeria matxistaren biktima gehien-gehienak emakumeak direlako (d).

Hori guztia taulako atal egokietan zehaztu beharko litzateke, eta aipatutako neurriak eta haien deskribapena zer artikulutan dauden adierazi.

### **Neurri osagarriak, arau-proiektutik harago:**

- Zabalkundea indartzeko ekintzak.
- Jarraipen – eta ebaluazio-ekintzak.
- Estatistikak egokitzea eta azterlan espezifikoak egitea.
- Informazio-, sentsibilizazio – eta prestakuntza-ekintzak.
- Sexu eta genero aniztasuna edo LGBTI kolektiboak eta pertsonen jasaten dituzten diskriminazioak ikusarazteko ekintzak.
- Arauak, planak edo programak egokitzea edo onestea.
- Berdintasunerako planak egitea.
- Egiturak edo zerbitzuak sortzea.

Neurri horietakoren bat hartzen bada, eraginari buruzko txostenean adierazi beharko da, [II. eranskineko](#) bigarren taulan, eta bertan, halaber, neurrien kopurua zehaztu beharko da, sailkapenaren arabera, neurriak labur deskribatzeaz gain.

## 1. adibidea:

Proiektu baten edukiak herritarrei kanpainen bidez edo informatzeko nahiz sentsibilizatzeko bestelako jarduera batzuen bidez helarazi nahi izanez gero, neurriak aurreikusi beharko lirateke ziurtatzeko edukien zabaltze horretan mezu eta bide egokiak erabiltzen direla, informazioa berdin irits dakien gizonen eta emakumeen, diskriminazio anitz jasaten dituzten emakumeen barne. Kasu horretan, **“zabalkundea indartzeko egintzak”** atala bete beharko litzateke.

## 2. adibidea:

Proiektu baten egoera aztertzeko ez badago sexuaren arabera bereizitako informaziorik, ezta proiektuari dagozkion beste aldagai batzuei buruzko informaziorik ere, eragina ebaluatu ahal izateko, azterketaren edo ikerketaren bat egitea, datu-baseren bat egokitzea edo beharrezko datuak lortzeko egokitzat jotako zerbait egitea aurreikusi beharko litzateke neurri moduan, eta hori **“estatistikak egokitzea eta ikerketa espezifikoak egitea”** atalean jaso.

### 3. adibidea:

Proiektu batean dirulaguntzak ematea arautu nahi bada, eta proiektuko balorazio-irizpideen artean genero-ikuspuntua jaso bada, komeniko da zenbait neurri aurreikustea, proiektuak ebaluatu behar dituztenek berdintasunaz behar adina dakitela bermatzeko. Proiektatutako erregulazio-mota dela-eta neurri horiek ezin badira testuan zuzenean sartu, subsidiarioki, beste neurri batzuk planteatu daitezke atal honetan; besteak beste, proiektuak baloratzen dituztenei berdintasunari, intersektionalitateari eta abarri buruzko prestakuntza ematea, edo aholkua eman diezaieketen pertsona adituen laguntza aurreikus daiteke. Kasu horretan, **“informazio-, sentsibilizazio – eta prestakuntza-ekintzak”** atala bete beharko litzateke.

### 4. adibidea:


Enplegu-arloan eskumena duen sailaren proiektu baten xedea emakumeak kontratatzeke laguntzak ematea bada emakumeek dagokiena baino ordezkari txikiagoa duten sektore batean, beharrezkoa izan liteke, proiektuaren eraginkortasuna handitzeko, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak arauen edo programaren bat onartzea edo egokitzea, genero-estereotipoek hautaketa akademikoan eta profesionalean duten eraginari aurre egiteko. Kasu horretan, **“arauak, planak edo programak egokitzea edo onartzea”** atala bete beharko litzateke.

### 3. Fasea: berdintasun zerbitzuaren oharrak eta iradokizunak

Litekeena da organo sustatzailearen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko elkarlanetik etorkizunean berdintasunaren esparruan lan egiteko ildoak sortzea. Era berean, baliteke GEEa egiteko unean proiektuaren edukian sartu ezin diren baina etorkizunean sar daitezkeen neurriak identifikatzea. Kasu horietarako, berdintasun teknikariek ohar eta/edo iradokizunen dokumentu bat egiteko **aukera**.



**EKİN!**



# Eranskinak

- I. eranskina: GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA EGITETIK SALBUESTEA JUSTIFIKATZEN DUEN TXOSTENA**
- II. eranskina: GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA**

# I. ERANSKINA

## GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA EGITETIK SALBUESTEA JUSTIFIKATZEN DUEN TXOSTENA

### ARAU-PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1. Izena:
2. Sustatzen duen saila:
3. Proiektuarekin zerikusia duten beste arauak, planak eta abar:
4. Helburu orokorrak:

### GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA EGITETIK SALBUESTEA JUSTIFIKATZEA

5. Arau-proiektuak generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duela pentsatzeko arrazoiak:
  - » Funtsean antolaketa-izaera dutenak.
  - » Indarrean dauden arauak bateratzea xede dutenak, inolako arau-berrikuntzarik ez dakartenak.
  - » Generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez dutenak,
    - Arauak pertsoneri eragiten al die, zuzenean edo zeharka?
    - Arauak alderdi hauei eragiten al die, zuzenean edo zeharka?
      - Emakumeek eta gizonek baliabide ekonomiko eta sozialak eskuratzeari.
      - Erabakiak hartzeko eremuetan parte hartzeari.
      - Genero desberdintasunen iraupenean eragina duten gizarte-arauei eta balioei.

Testua idaztean hizkuntzaren erabilera aztertzea, baita beste neurri posible batzuk ere: datuak sexuaren eta generoaren arabera bereizita ematea, emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua kontsulta-organoetan, epaimahaietan, etab.

Txostenaren data:

Txostena idatzi duenaren sinadura:

Proiektuaren ardura duen zuzendariaren sinadura:



# II. ERANSKINA

## GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA

Txostenak atal hauek ditu:

- a. Arau-proiektuaren edo administrazio-esparruko egintza-proposamenaren deskribapen orokorra.
- b. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa:
  - » Eraginaren ebaluazioa.
  - » Hobekuntzak.
  - » Oharrak eta/edo iradokizunak

### A. ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-ESPARRUKO EGINTZA-PROPOSAMENAREN DESKRIKAPEN OROKORRA

1. Izena:
2. Sustatzen duen saila:
3. Proiektuarekin zerikusia duten beste arauak, planak eta abar:
4. Helburu orokorrak:
  - 
  - 
  -
5. Genero-berdintasuna sustatzeko helburuak:
  - 
  - 
  -

## **B. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA**

### **1. ERAGINAREN EBALUAZIOA**

1. Baliabideak eskuratzeko orduan emakumeen eta gizonen presentziari dagokionez egon daitezkeen desberdintasunak eta genero-arrakalak:
  - 1.1. Abiapuntuko egoeraren azterketa ikuspegi intersektionaletik.
  - 1.2. Eraginaren balorazioa. Aurreikusten da etorkizuneko arauak emakumeen eta gizonen presentzian dauden desberdintasunak murrizten lagunduko duela haren ondorioz sortzen diren onura edo emaitzetan edo baliabideak eskuratzeari dagokionez?
2. Erabakietan parte hartzea.
  - 2.1. Abiapuntuko egoeraren azterketa
  - 2.2. Eraginaren balorazioa. Etorkizuneko arauak aurreikusten al du emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua edo, gutxienez, eremuan duten presentziaren antzeko ordezkariak?
3. Gizarte-arauak eta -balioak
  - 3.1. Abiapuntuko egoeraren azterketa
  - 3.2. Aurreikusten al da etorkizuneko arauak planteatutako helburuak eta neurriak lagungarriak izango direla emakumei eta gizonei egokitzen zaizkien gizarte-arauak edo -balioak gainditzeko edo aldatzeko?
4. Berdintasunaren arloko araudia betetzea.
  - 4.1. Abiapuntuko egoeraren azterketa
  - 4.2. Bermatzen al da diskriminazioa galarazteko eta berdintasuna sustatzeko arauak bete eta beste tresna juridikoak erabiliko direla? Eta aurreikusten al da haiek hobetzea?

## 2. HOBEKUNTZAK

### 2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK EZABATU ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO NEURRIAK

NEURRI MOTA		Adierazi zer artikulutan jasotzen diren neurriak eta haien deskribapena
Genero-ikuspegia txertatzea sustatzeko neurriak	emakumeen eta gizonen eta/edo LGTBI pertsonen egoera desberdina hobeto ezagututa	
	emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio, helburu gisa edo adierazpen nahiz azalpen moduan jasota	
	hizkuntzaren erabilera inklusiboa eginda edo sustatuta	
	genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen parte-hartzea sustatuta	
	berdintasuna eduki edo irizpide gisa hartuta (sartzeko, baloratzeko edo zeregina betetzeko) hautaketa-prozesuetan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan, prestakuntza-jardueretan eta abarretan	
	beste batzuk; zehaztu: _____	
Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko neurriak	hautatzeko epaimahaietan	
	sariak banatzeko epaimahaietan	
	kontsulta organoetan	
	zuzendaritza organoetan	
	beste batzuk; zehaztu: _____	

Ekintza positiboko neurriak	emakumeentzat	
	LGTBI pertsonentzat / indarkeria matxistaren biktimentzat / guraso bakarreko familientzat	
	gizonak berdintasunaren alde inplikatu daitezen	
	beste batzuk; zehaztu: _____	
Itxuraz neutroak diren baina aurreikusteko moduko genero-inpaktu positiboa izan dezaketen neurriak	indarkeria matxistaren biktimentzat	
	guraso bakarreko familientzat	
	mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenentzat	
	beste batzuk; zehaztu: _____	
Diskriminazioa eragiten duten botere- eta zapalkuntza-ardatzen arteko erlazioaren ondorioz emakumeek aurre egin beharreko desberdintasunak murrizteko neurriak	adinagatik	
	gizarte-klaseagatik/errenta-mailagatik	
	sexu-orientazioagatik edo/eta genero-identitateagatik	
	desgaitasunagatik	
	etniagatik	
	nazio-jatorriagatik	
	landa-eremuan bizitzeagatik	
	beste batzuk; zehaztu: _____	
Debeku- edo zigor-neurriak	sexua edo generoa dela eta diskriminatzeagatik	
	hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik	
	beste batzuk; zehaztu: _____	

**2.2. BERDINTASUNERAKO HELBURU ETA NEURRIEN ERAGINKORTASUNA OSATU EDO AREAGOTZEKO NEURRIAK, ARAU EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZAREN EDUKIA ALDE BATERA UTZITA**

NEURRI MOTA	Deskribapena
Zabalkundea indartzeko ekintzak	
Jarraipen- eta ebaluazio-ekintzak	
Estatistikak egokitzea eta azterlan espezifikoak egitea	
Informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak	
Sexu eta genero aniztasuna edo LGTBI kolektiboak eta pertsonen jasaten dituzten diskriminazioak ikusarazteko ekintzak	
Arauak, planak edo programak egokitzea edo onestea	
Berdintasunerako planak lantzea	
Egiturak edo zerbitzuak sortzea	
beste batzuk; zehaztu: _____	

**EMAITZA: GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOAREN TXOSTENA**

Eraginaren ebaluazioa eta sartutako hobekuntzak laburtzea.

Txostenaren data:

**Txostena idatzi duenaren sinadura:**

**Organo sustatzailearen arduradunaren sinadura:**

**3. OHARRAK ETA/ EDO IRADOKIZUNAK  
(Berdintasun Zerbitzuak betetzeko)**

Ba al dago arau-proiektuaren edukian sartu ezin izan den neurririk?

Identifikatu al da etorkizunean berdintasunaren alorrean organo sustatzailearekin landu daitekeen lan-ildorik?

**EMAITZA: OHARRAK ETA/ EDO IRADOKIZUNAK AGIRIA:**

**Berdintasuneko teknikarien sinadura:**